



# **EGOERA-DIAGNOSTIKOA**

## **Euskadi 2020an jasangarria izan dadin.**

**Laburpena**

**LANERAKO DOKUMENTUA**

2011eko Maiatza

*Txosten hau lanerako dokumentu bat da, eta honen azken bertsioak [www.ecoeuskadi2020.net](http://www.ecoeuskadi2020.net) helbidean egongo dira eskuragarri, kontraste-prozesua eta jendeak parte hartzeko prozesua amaitutakoan.*

*Eusko Jaurlaritza  
Idazkaritza Teknikoa. Ihobe, Sozietate Publikoa.*

# Laburpena

---

## 1. Sarrera: EkoEuskadi 2020.

*Zertarako  
balioko du  
EcoEuskadi  
2020-k?*

*Iraganean  
arrakasta izan  
duen garapen-  
eredua...*

*...baina  
jasanezina  
epe luzera*

EcoEuskadi 2020ren helburua da etorkizunean gizarte jasangarriago batera igarotzeko ibilbide-orria izatea. Horretarako, nahitaezkoa da oparotasun ekonomikoari, zuzentasunari, gizarte-kohesioari eta ingurumenaren zaintzari buruzko hausnarketa egitea 2020. urteari begira. Hausnarketa horren emaitzak Euskal Autonomia Erkidegoko politika publikoak bideratzen lagunduko du.

Euskal Autonomia Erkidegoa nabarmen hazi da autogobernua duenetik, 30 urteotan alegia. Hala frogatzen dute ekonomia-, gizarte- eta ingurumen-adierazleek; erakusten dute, halaber, Europako batezbestekoarekin azkar egin dugula bat alderdi gehienei dagokienez, eta, beste batzuetan —per capita errentan, adibidez (eroste-parekotasunari dagokionez)—, Europako ekonomien buruan jarri da EAE.

Garapen industrialaren garapenean oinarritutako politika koherente batzuk bultzatuta, ingurumen-desorekak zuzenduta eta gizartea babesteko politikak ezarrita egin du aurrera prozesu horrek. Oraindik ere indarkeria terrorista dugu orbanik ilunena, eta errotik kendu behar da. Talde guztiek bake-bidea hartu behar dute, inongo aitzakiarik gabe, eta elkarrizketa eta adostasun soziala erabili desberdintasun politikoak konpontzeko tresna bakar gisa.

Baina iraganeko arrakastek inoiz ez dute bermatu etorkizunean arazorik ez izatea. 2008ko mundu-krisi larriak agerian utzi digu, beste behin ere, hazkunde-bidearen ezegonkortasuna.


**Epe luzeagora, argi ikusten aldaketek arriskuan jarriko dutela orain arteko hazkunde-eredua.** Hiru aldaketa nabarmentzen dira:

- **Aldaketa demografikoak.** Gizakion bizitza luzatu egin da, iraganeko arrakastari esker, eta ugalkortasun-tasa, berriz, murriztu. Horrek arriskuan jar dezake belaunaldi-errebua.
- **Herrialdeen arteko lehia gero eta biziagoa da, eta baliabide mugatu batzuk lortzeko (ura, lehengaiak, energia, elikagaiak, itsas baliabideak...), produkzio-sistema elikatzen duten lehengaiak agortzeko bidean jarri ditugu, mundu osoan, enpresa-lehiaren globalizazio-testuinguru honetan.**
- **Klima-aldaketa, batez ere erregai fosilen kontsumo handiak eragina.**

*Erantzun eta  
eskakizun  
berriak*

Hiru mehatxu horiek nazioarteko erronka zahar bati gehitzen zaizkio: zenbait herrialderen muturreko pobrezia, garatzeko aukerarik ez izateak... migrazio-fluxuak eragingo dituzte —nahitaez— herrialde garatuetarantz.

Epe luzerako joera horiek agerian uzten dute lehen ere begien bistakoa zena: produkzio-sistemaren, inguru naturalaren eta bizi-kalitatearen arteko lotura estua. Hiru arlo horien arteko harremanak erabakitzen du egoera eta hazkundearen mugak (jasangarritasuna).



Jakina, aldaketek aukerak ere sorrarazten dituzte (energia berriztagarriak garatzea, oraindik oso gutxi ezagutzen ditugun teknologia berriak, globalizazioa eta munduko talentuen mugikortasuna...), garapen zientifikoa eta teknologikoa sustatzen dute... Horri esker, sektore, produktu eta teknologia berriak sortuko dira; erantzun berriak, alegia.

Laster gertatuko diren aldaketek gainditu egiten dituzte aurreko hamarkadetako aldaketen irismena eta abiadura. Aldaketa teknologiko, ekonomiko eta sozial horiek hankaz gora jartzen dituzte orain arteko joko-arau nagusiak, eta eragile sozial guztien erantzun aktiboa eskatzen dute: herritarrena, gizarte- eta enpresa-erakundeena eta administrazio publikoena.

Aldaketetara arrakastaz egokitzeko berrikuntza-gaitasuna izateko, prozesu hori hobetzeko gizarte-balio egokiak landu behar dira.



Europa 2020  
estrategiaren  
xedeak

## 2. 2020ko eta geroagoko egoera. Aldaketa-prozesu bizian dagoen mundua.

Lisboako Estrategia aldatu ondoren, Europako Batasunak “2020ko estrategia” egin du, hazkunde zentzuduna, jasangarria eta integratzailea lortzeko asmoz, eta aurreko bertsioetan baino nabarmenago txertatu du jasangarritasuna garapenaren hiru alderdi hauetan: ekonomia, ingurumena eta gizartea.

Helburu kuantitatibo gisa, biztanleria okupatua eta ikerketarako inbertsioa handitzea da asmoa, eskola-porrota murriztea eta pobrezian bizi diren edo hala bizitzeko arriskua duten pertsonak gutxiago izatea, eta 20/20/20 helburua lortzea energian eta klima-aldaketan (eraginkortasuna handitzea, energia berriztagarriak sartzea eta berotegi-efektuko gasen emisioa murriztea).

### Egoera makroekonomiko hipotetikoak

	2011	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	2019	2020
<b>TOTAL MUNDIAL</b>	4,1	4,1	4,6	4,3	4,1	4,3	3,9	3,1	2,9	2,8
<b>ECONOMÍAS DESARROLLADAS</b>	2,2	2,4	2,7	2,4	2,2	2,7	1,7	1,4	1,2	1,1
<b>EEUU</b>	2,7	2,8	3,0	2,5	2,1	2,6	1,7	1,4	1,3	1,3
<b>Japón</b>	2,2	1,9	2,2	2,4	2,7	3,1	2,0	1,3	1,0	0,9
<b>UNION EUROPEA</b>	1,2	2,0	2,6	2,4	2,2	2,7	1,6	1,4	1,2	1,0
<b>España</b>	0,5	0,9	1,3	1,5	2,1	2,3	2,1	1,7	1,6	1,3
<b>CAPV</b>	1,5	1,8	1,9	2,2	2,3	2,4	2,1	2,0	2,0	1,8
<b>ECONOMÍAS EN DESARROLLO</b>	6,3	6,2	6,6	6,7	6,3	6,1	3,6	3,3	3,0	4,3
<b>LATINOAMÉRICA</b>	3,0	4,0	3,2	4,8	4,5	4,5	3,0	3,8	3,8	3,0

*Iturria: Eusko Jaurlaritza, Ekonomia eta Planifikazioa Zuzendaritza, Euskadi S21 eredia eta CEPREDE*

Ekonomia-  
hazkuntza  
geldoa...

Hasi berria dugun hamarkadarako aurreikuspen makroekonomikoek diotenez, EAEko ekonomiak hazkunde txikiagoa izango du, aurreko hamarkadarekin alderatuz, eta Mendebaldeko gainerako ekonomiak ere gutxi haziko dira (EB, AEB, Japonia). Baina munduko hazkundeak handia izaten jarraituko du. Oraingo honetan, garatzen ari diren ekonomia handiek bultzatuko dute, bereziki, Txinak, Indiak eta Brasilek, munduko hazkundearen eragile berri bilakatu baitira.

... eta gastu  
sozial  
handiagoa,  
aurrekontu  
murriztagoaren  
kin.

2008-2011ko krisiaren eraginez, asko zorpetu dira EAEko administrazio publikoak, zerga-bilketa txikiagoa izan baita, eta gastu soziala, berriz, handiagoa. Ortodoxia finantzariora itzultzeko, gastu publikoa gutxitu egin behar da. Dena den, gastu sozialak handitzen jarraituko du; ez krisiaren eraginez, baizik eta biztanleria zahartzen ari delako hazten ari delako besteen laguntza behar duten herritarren kopurua eta eskubide sozialak unibertsal bihurtu direlako.

Beste era  
bateko  
lehiakortasuna

Arrisku horiek ikusirik, egokitu egin beharko da ekoizpen-egitura: karbono gutxi erabiltzen duen, materialen erabilera eraginkorra egiten duen, gero eta desmaterializatuagoa den eta nazioarteko lehiakortasunak mundu-merkatuetan egoki txertatzea eta lehiatzeko abantaila globalak eraikitzea eskatzen duen mundu baten lehiakortasun-eskakizunak aintzat hartuko beharko ditu.

Etorkizuneko hazkundeak gehiago egon beharko du pertsonako balio erantsiaren mende, lan-merkatuko pertsona-kopuruaren hazkunde kuantitatiboan baino. Izan ere, jaiotza-tasa jaisteak biztanleria gutxitzea ekarriko du 2030 inguruan.

*Hazkunde demografikoa, txikia bada ere, immigrazioari esker,*

*eta ekonomia-mendekotasunaren hazkunde handia*


*Ingurumen-kudeaketaren hobekuntza eskasa*

*Energia-bereizkuntza eskasa*

*Oreka eta bake sozial handiagoak*

Bizi-itzaropena ia zortzi urte luzatu da 1980tik, eta beste bi urte luzatuko da hamarkada honetan. Alabaina, emakume bakoitzeko ondorengoen kopuruak bat-bateko beherakada izan du, eta horrek euskal piramide demografikoa alderantzizkatu egin du: azken urteotan, hazkunde txiki bat izan du, baina oraindik asko falta zaio ordezkatzeko demografikoaren tasara heltzeko (2,1 ondorengo).

### 1. Irudia. biztanleria-piramidea (2006-2020)



Mende honen lehen hamarkadan izandako atzerriko immigrazioari esker gainditu da (% + 4,8, 2001-2010ean) azken mendelaurdeneko biztanleria-geldialdia. Hazkunde ekonomiko motelagoa espero denez, immigrazio-tasak txikitu egingo dira, baina biztanleriak hazten jarraituko du, nahiz eta tasak baxuagoak izan (% + 2,3, 2020an).

Hori dela eta, beste neurririk hartu ezean, EAEko biztanleria zahartuz joango da, pixkanaka. Eragin ekonomiko eta sozial larriak izango ditu horrek. 2020rako, biztanleria aktiboa (16-64 urte) % 6 gutxituko da, eta 65 urtetik gorako biztanleria, berriz, % 18 haziko da. Mendekotasun ekonomikoa duen biztanleriaren eta biztanleria aktiboaren arteko lotura asko handituko da: % 29tik % 36ra igoko da. Dinamika hori areagotu egingo da hurrengo urteetan.

**Ingurumenari dagokionez, abian diren aldaketek iragartzen dute ingurumen-kalitatea hobetuz joango garela, eta berotegi-efektuko gasen emisioak bereizten jarraituko dugula (2002an hasi ginen horretan).** Dena den, energia-arloan, apenas lortuko den energia-kontsumoa eta energia fosilekiko mendekotasuna murriztea. Energia-eraginkortasuna handitzeak ekarriko du murrizketa hori, batez ere etxebizitzaren eta garraio pribatuaren sektorekoak.

Erabateko berrikuntzarik egin ezean —zaila izango da epe laburrean halakorik lortzea—, materialen kontsumoa eta hondakin-sorrera egonkortu egingo dira.

**Gizarteari dagokionez, indarkeria terrorista behin betiko ezabatzea izango da hobekuntza garrantzitsuen.** EAE askotarikoagoa, heterogeneoagoa eta multikulturalagoa izango da.

Politika sozialak garatzeari esker, kohesio soziala izango dute solidaritate-parametroek eta desoreka handirik gabeko gizartearen parametroek.

Familia bateratzeko eta familia-kargak berdintasunez banatzeko politiketan aurrerapen irmo bat egiteak aukera emango du familia-errealitate eta lan berrietara egokitze. Horrek, gainera, lagundu egingo luke ugalkortasun-tasak bere onera etortzen.







*Sektore publikoa, zikloaren alderantzizko bidean*

*Finantza publikoak asko aldatu ziren 2010-2020ko hamarkadaren hasieran*

### Aurrezkia, kapital-gastuak eta defizita. Eusko Jaurlaritza, 1980-2009.



### Aurrezkia, kapital-gastuak eta defizita. Euskal Autonomia Erkidegoa, 1980-2009



### 3. Jasangarritasunerako arriskuak: EAEko egoera, ekintzak eta etorkizuna

#### 3.1. Ekoizpen-eredua, enplegua eta lehiakortasuna. EAE, ekonomia globalean.


*Produkzio-sistemaren, ingurumen-sistemaren eta sistema sozialaren arteko lotura*

Ongizate-maila jakin bat lortzeko eta pertsoneri lana emateko behar diren ondasunak eta zerbitzuak sortzen ditu produkzio-sistemak. Teknologiak baliabide naturalak (lehengaiak, lurzorua, energia) ongi edo gaizki erabiltzeak berebiziko eragina du ingurumen-inpaktuan (emisio poluitzaileak eta isurketak airera, uretara eta lurzorura; hondakinen sorrera; lehengaien agortzea...). Bestalde, produkzio-egiturak eta enpresen tipologiak finkatzen dute errentaren banaketa, eta gutxi asko berdintasunezkoa den gizarte bat sortzen laguntzen dute.

*Industriak ekoizpen-sisteman buru izaten jarraitzen du,*

EAEren produkzio-egituran, industria-jarduerak dira nagusi, Industria Iraultzaren hasieratik. Ekarpena gutxitu egin den arren —batez ere, 1980ko hamarkadan—, gaur egun ere BPGaren % 28 sortzen du industriak merkatu-prezioetan; beraz, Espainiaren oso gaineratik dago (% 17), bai eta Europaren (% 20) eta Alemaniaren (% 26) gaineratik ere.

#### BEG-AREN BANAKETA, SEKTORE HANDIETAN € arruntetan



Metalaren sektorea da nagusia: metalurgia, makinak eta ekipoak, garraio-materialak eta material elektrikoak industria-BEGaren % 58 dira.

*... gero eta gehiago hirugarren sektorerantz ari den*

Iturria: A. Alberdi, *Economía vasca 1980-2010, Ekonomiaz 2010*.

Gehienbat produkzio-sektore bideratutako jarduerak dira (ekipo-ondasunak, osagaiak, tarteko produktuak), eta askoz gutxiago dituzte kontsumo-ondasunen industriak.

*... eta lehen sektorea arras murriztu den gure ekonomia honetan.*

Aldi berean, ordea, enpresentzako zerbitzuak eta finantza-zerbitzuak asko hedatu dira (lehenengo horiek sei puntu irabazi dituzte 1980tik, eta bigarrenek, hiru). Lehen industria-instalazioetan egiten ziren jarduerak kanpora ateratzeak eta negozio-ereduak ondasunen produktotik zerbitzuak ematera aldatu izanak adierazten digutenez, industria berri bat dugu egun, eta industrial hustzat jotzen diren sektoreek baino garrantzi handiagoa du.



*Industria-  
sektorearen  
espezializazioa  
eta prozesu-  
motak dira  
materialen eta  
energiaren  
erabilera  
intentsiboaren  
eragileak,*

*Nazioarteko  
logistika eta  
konektibitate  
globala  
ezinbestekoak  
dira enpresen  
lehiakortasun  
globalari  
eusteko.*

**Kontsumoari lotutako zerbitzuak ere 3,7 puntu igo dira, hezkuntza-zerbitzuak (1,8 puntu) eta osasun-zerbitzuak (2,2 puntu) garatzearen eraginez.** Lehen sektoreak, berriz, izugarri egin du behera, eta %1 baino gutxiago da egun.

Sektore horren espezializazioa dela eta, EAetik kanpoko (Espainiako eta atzerriko) merkatuen oso mende dago, bai lehengaien hornikuntzari bai produktuen merkaturatzeari dagokienez.

Esportazio- eta inportazio-jarduerak hazten ari dira:

- Nazioarteko merkatura hainbeste hedatu izanak euskal industriaren lehiakortasuna erakusten du (oro har, emaitza positiboa izaten du ordainketa-balantzari).
- Esportazioetan, metalurgia-sektoreak dira jaun eta jabe, baina baita petrolioaren deribatuak ere. Esportatzen den guztiaren herena baino zertxobait gehiago bederatziz arantzel-partidari dagokio. Inportazioetan, energia-produktuak daude lehen postuetan (gutzizkoaren herena).
- Esportazioak munduko ia leku guztietara iristen dira, baina gutxi batzuetan pilatzen dira: Frantziara eta Alemaniara joaten dira EAeko esportazioen % 30. Txina hamalagarren postuan dago; Brasil, hamaseigarrenean; eta India, hogeita batgarrenean.
- Inportazioetan, herrialde-kopurua zertxobait txikiagoa da, baina zabala eta geografikoki kontzentratua, hala ere. Frantzia eta Almenania % 21 dira, baina Errusia eta Iran lehenbizikoan eta seigarrengoa daude. Txina bosgarren postura igo da.

### EAE-KO ENPRESA-TALDEAK NAZIOARTEAN (2007)



Baina nazioarteko merkataritza lehen urratsa besterik ez da. Produktzioa ere kanporatzea beharrezko etapa bat da —gero eta gehiago, gainera— globaltasunaren abantailez baliatzeko:

- esportazioa lehiakorra ez den merkatu handietara sartuz;



- ii. EAEn orain lehiakorrak edo errentagarriak ez diren produkzioak beste norabait eramanez, eta
- iii. lehengaietara edo eskulan merkera mugatzen ez diren baliabide eta abantaila lokalak aprobetxatuz.

Enpresa aurreratuek (enpresa hedatuak) globalki kudeatzen dute balio-katea, jarduerak sarean banatuz eta jarduera sofistikuak txertatuz, hala nola diseinua eta I+G.

EAE da, Espainiako autonomia-erkidegoetatik, nazioartean gehien diharduen bigarrena, Madrilen ondoren eta Kataluniaren aurretik, egindako inbertsioei dagokienez. Aldiz, ez du partaidetza handirik hazkunde handieneko herrialdeetan (adibidez, Txinan edo Indian).

Teknologia, ekonomia eta gizartea egokitzeko prozesuak etengabeak dira, eta, prozesu horiek egiten ez badira, enpresak eta enplegua suntsitzen dituzten krisiak sortzen dira, ziklikoki. 1980ko hamarkadan birmoldaketa gogor bat egin eta 1990eko hamarkadaren hasieran atzeraldia izan ondoren, lehiakortasuna indartzeak ekoizpen-sare berri bat ekarri zuen, ez aurrekoa bezain kontzentratua, sofistikuagoa, eta kanpo-lehiari irekia. Azkenean, langabezia (masiboa) arras jaitsi eta Europaren mailara iritsi gara errentari eta enpleguari dagokienez, eta etapa berri bat hasi dugu hirugarren konbergentziaren bila: I+G+Bren konbergentzia.

Emaitza onak lortu arren, doikuntza-prozesuek beharrezkoak izaten jarraituko dute, eta krisiak berriro etorriko dira, gaur egungo higiezin- eta finantza-krisiak baieztatzen duenez.

**Europako Batasunaren apustua da berrikuntzatik ekoberrikuntzara pasatzea, eta energiaren erronkari (karbono gutxiko ekonomia) eta produkzioa desmaterializatzeari erantzutea, lehia globalizatuaren testuinguruan.**

- Jauzi handi bat zientzia-, teknologia- eta berrikuntza-alorrean.
- Bultzada sendoa enpresa-berrikuntzari eta jarrera ekintzaileari.
- Biztanleria aktiboaren aldibereko prestakuntza.

Jauzi hori egiteko, ezinbestekoa da zientzia- eta teknologia-sistemaren laguntza. Orain arte, honetan lagundu du sistema horrek:

- Ikertzeko eta garatzeko gaitasuna eraikitzen, ia hutsetik abiatuta.
- Orainaldia indartzen, fabrikazio-sistema berriak (errendimendu handiko fabrikazioak, material berriak, IKTak) eta zerbitzuak (turismoa, hizkuntza, merkataritza, elikagai-segurtasuna) bultzatuz.

*Krisi- eta doikuntza-prozesuak ugariak izan dira*

*eta hala izango dira etorkizun hurbilean ere.*



*... sektore nahiko helduak ditugu.*

*Berrikuntza ez da behar adinakoa, nahiz eta bide zuzenetik gabiltzan.*

*Inpaktu handiko ekimen ekintzaile gutxi.*

*Berritzeko gai diren ohiko sektoreak eta sortzen ari diren sektore berriak izango dira nagusi etorkizunean.*

*Produkzio-sektoreak aurrera egiteko, biztanleria aktiboak harekin batera aldatu behar du.*

*Langile gero eta kualifikatuagoak izan behar ditugu, sormen handiagokoak eta ikasteko, berritzeko eta bizitza guztian egokitze gai direnak.*

- Ekoizpen-sarea dibertsifikatzea eta ezagutzako sektore berri eta intentsiboen alde egitea, I+G+Bren kultura oso txertatua dutenak (biozientziak, nanozientziak, energia alternatiboak, garraio adimenduna, ekoberrikuntza, ikerketa soziala), eta ikerketa estrategikoa sustatzea, ikerketa-zentro kooperatiboen (IZK) eta oinarrizko ikerketaren eta bikaintasunaren zentroen (OIBZ) bidez.

Industria-sektore gehienak (% 58) teknologia-maila ertain-baxukoak edo baxukoak dira; maila ertain edo erdi-altukoak, berriz, industria-BPGaren % 28 baino ez dira, enpresa jakin batzuen maila goragokoa lortzen badute ere.

**Orain arteko ahaleginak gorabehera, berrikuntza-mailak ez dira behar bestekoak:** produkzio-instalazioen % 20 bakarrik dira berritzaileak (teknologikoak, merkataritzakoak edo antolaketakoak). Handiagoa da ehuneko hori industrian (% 26), eta 10 langile edo gehiago dituzten enpresak bakarrik kontuan hartuz gero (% 30-% 60).

Nahiz eta EAEko **jarduera ekintzailea** oparotasun ekonomikoarekin bat datorren (beste herrialde batzuetan baino gehiago), emaitzek adierazten dute ekimenek inpaktu baxua edo erdi-baxua dutela berrikuntzari, nazioartekotzeari eta hazkundeari dagokienez. Ziurrenik, enpresa-talde garrantzitsurik ez egoteak mugatu egiten du teknologikoki eta nazioartean jarduteko gaitasuna.

Etorkizuna eguneratzeko gaitasuna duten sektore tradizionalen eta sektore berrien mende dago:

- Etorkizun oparoko sektore tradizionalak, hala nola metala, automobilgintza, ontzigintza, etxetresna elektrikoak, makina-erreminta, trengintza, papergintza, industria kimikoa, garraioak eta osasuna.
- Sektore berriak, hala nola energia, IKTak eta elektronika, aeronautika, turismoa eta gizarte-zerbitzuak.
- Indarra hartzen ari diren sektoreak, hala nola biozientziak.

Etengabe berritzeko beharra, sektore berriak garatzea eta enpresen deslokalizazio- eta globalizazio-prozesuak direla eta, **ikasteko, berritzeko eta bizitza profesional guztian zehar moldatzeko gaitasuna duten sormen handiko pertsonak behar dira.**

Aberastasun gehiago sortzeko gaitasuna eskura dauden giza baliabideen eta haien produktibitatearen mende dago.

- Azkenaldian, biztanleria aktiboa handitu egin da, biztanleria handitu ez den arren, emakumeak lan-merkatuan sartu direlako eta, geroago, immigrazioagatik.
- Etorkizun hurbilean, piramide demografikoaren egiturak hainbat galdera sorrarazten ditu lanean ari den biztanleriaren belaunaldi-txandaketari buruz. Proiektu gakoak ahuldu egiten dira, ez dagoelako profesional espezializaturik.

Bizi-maila, oro har, hobetu egin denez, ekoizpen-sistemak gero eta kualifikazio eta ordainsari handiagoko lanpostuak sortu behar ditu.

*Gaur egungo langabeziak gazteei eragiten die, batez ere*


*Lan-merkatuak urritasun larriak ditu azpiokupazioari eta behin-behinekotasunari dagokienez*

*Biztanleria okupatuaren prestakuntza asko hobetu da*

Ikuspegi sozialetik, ekoizpen-sistemaren arrisku handiena biztanleriaren beharrak asetzeko lanpostu-kantitatea eta -kalitatea (asebetetze profesionala) sortzeko gai ez izatea da.


Baina, langabeziarekin bat, jasangarritasun-arazo nagusiak azpiokupazioa eta behin-behinekotasuna dira. Azpiokupazioak **prestakuntzaren eta okupazioaren arteko desdoiketa eragiten du.**

Langabezia-tasaren eboluzioa adin-geruzaka



- 30 eta 34 urte bitarteko lau pertsonatik batek goi-mailako ikasketak ditu (emakumeak gizonak baino 8 puntu gorago daude).
- Euskal Autonomia Erkidegoko 20 eta 24 urte bitarteko biztanleriaren hezkuntza-maila (gutxienez, bigarren hezkuntzako ikasketak dituztenen ehuneko) Europako batezbestekoa baino handixeagoa da, eta handia Espainiako batezbestekoarekin konparatuta (18 puntutan gainditzen du). Hori dela eta, Europako batezbestekoan atzematen den gorako joeraren aldean, deigarria da Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan atzerapen nabarmena gertatu dela 2001az geroztik, bai gizonei bai emakumei dagokienez.
- PISAren berrikuspenaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoko 15 urteko ikasleak tarteko mailan daude irakurtzeko gaitasunari dagokionez; maila altuxeagoa dute matematikan, eta baxuagoa, aldiz, zientzian; nolahi ere, Espainiako batezbestekoaren aurretik geratu dira (ez dira lehenbizikoak, hala ere).

### BIZTANLERIA OKUPATUAREN PRESTAKUNTZA (1980-2007)



Fuente: IVIE.

*Batez ere  
EAetik kanpoko  
lehengaiak eta  
gai naturalak  
kontsumitzen  
ditu sistemak.*

*Lehiakortasuna  
lekualdatzeko  
eta baliabideak  
agortzeko  
arriskua*

*Materialen  
eraginkortasuna  
hobetzen ari da*

*Ekoizpen-  
prozesuan  
emisio eta  
isurpen  
kutsatzaileak  
sortzen dira,*

*eta kontrol-  
arautegiaren  
arabera  
ezabazten dira*

### 3.2 Ekoizpen eta kontsumo iraunkorrak. Lehengaiak. Hondakinak eta birziklatzea

Ekoizpen-sistemak lehengaiak edo gai naturalak prozesatzen ditu, herritarrek eta beste enpresa batzuek zuzenean aprobetxatu ditzaketen ondasun eta zerbitzu bihurtzeko. Euskal Autonomia Erkidegoko industria intentsiboa da, materialei eta energiari dagokienez, haren egitura dela eta.




EAEn ez dagoenez berezko baliabiderik, berebiziko garrantzia du hornigaiak prezio lehiakorretan mantentzeak (eskuragarritasuna). Beste herrialde batzuen industrializazio bizkorrek merkatu-tentsioak eragiten ditu eta, azken batez, eragindako enpresak deslokalizaziora eraman ditzake. **Beraz, energia-eraginkortasuna eta, oro har, ekoeraginkortasuna erabakigarriak dira etorkizuneko enpresa-lehiakortasunerako.**

Nahiz eta materialen kontsumoaren gutzitza (117 tona biztanleko) goranzko joerari eusten dion, BPGarekiko bat ez-etortze erlatibo bat gertatu da; izan ere, gora-beherak egon diren arren, materialaren gutzitza eraginkortasuna (material-beharren gutzitza, BPGarekiko) 2001eko mailetan mantendu da, oro har.

Ekoizpen- eta kontsumo-prozesuek isurpenak ekartzen dituzte (zoruak, ura eta airea kutsatzen dira) eta ingurumenari eragiten diote (paisaia hondatu egiten da, ingurune naturala artifizial bihurtzen da, habitat naturalak aldatu egiten dira); halaber, hondakinak sortzen dituzte (ekoizpen-prozesuan edo merkatuan banatzeko etapetan eta gero azken erabiltzaileek erabiltzen dituztenean).

Osasunerako arriskuak ekar ditzakete erauzte- edo ekoizpen-prozesuetan (zarata, lan-istripuak eta abar) edo produktuei substantziak gehitzeagatik (koloratzaileak, kontserbagarriak eta abar). Arautegiak erregulatzen ditu prozesuak, inpaktuak al bait gehiena murrizteko.

#### Baliabide naturalen kontsumoaren eboluzioa. EAE, 2000-2008





*Ingurumen-  
kalitatea  
hobetzen ari da*

*...airea  
hobetzen ari da*












*...baita  
kontsumorako  
eta bainurako  
ura ere*

*...nahiz eta ur  
naturalen  
egoera*

*...eta aldaketa  
handiak jasan  
dituzten urena  
nabarmen  
hobetu beharra  
dagoen*

**Ingurumen-kalitatea** hobera ari da, salbuespen batzuk badaude ere.

### Ingurumen-ebaluazio integratua. 2009

Objetivos estratégicos	Tendencia
1. Aire Limpio	
2. Buena calidad del agua	
3. Prevenir y corregir la contaminación del suelo	
4. Consumo responsable de los recursos naturales	
5. Fomentar un consumo y una producción energética sostenible	
6. Reducción de residuos y vertido cero sin tratamiento	
7. Mantener nuestra biodiversidad biológica	
8. Hacia un nuevo modelo de gestión de la movilidad	
9. Lograr un uso equilibrado del territorio	
10. Limitar las emisiones de gases de efecto invernadero	
11. Adaptación al cambio climático	

**Airearen** kalitatea ere hobetu egin da, urteko batez besteko partikula-kontzentrazioa nabarmen murriztu baita. NOx eta KOLEMen emisioei dagokienez, bilakaera ez da hain ona.

**Uraren** kalitatea ere hobetu egin da, baina ur-motaren arabera dira emaitzak:

- Biztanleriaren % 94k hartzen duen kontsumo-ura ona da. Biztaleriaren % 97ri hirietako hondakin-uren arazketa-instalazioak jartzeko konpromisoa betetzen ari gara. 2008an, biztanleriaren % 85ek zeuzkan horerlako instalazioak; gainerakoak, berriz, eraikitzen ari ziren.
- Bainurako urak hobetu egin dira, eta laginketa-puntuen % 3k bakarrik ez du lortu "ona" edo "onargarria" kalifikazioa.
- Ibaien kalitatearen egoera nahiko egonkorra da; 93 ur-masa naturaletako % 45 egoera ekologiko onean daude, % 24 egoera ertainean, eta % 31, berriz, egoera eskasean edo txarrean.

- Itsasertzeko urei dagokienez, bilakaera oso positiboa izan da, eta, egoera, oro har, ona edo oso ona dela jotzen da, nahiz eta egoera ekologikoan hobetzeko gauza dezente geratzen diren. Estuario-uretan, degradazioa handiagoa da, baina hobekuntza nabarmena egon da 1995 eta 2008 bitartean.
- Urmael eta hezeguneetako egoera ekologiko orokorra ez zen ona 2007-2008 ziklo hidrokologikoan; izan ere, % 37 egoera eskasean edo txarrean zeuden; % 37, egoera onean, eta % 26 tarteko egoera ekologikoan.
- Ur-masa artifizialek eta oso aldatutako ur-masek, hiri- eta industria-inguruneetan daudenez, balorazio txarra jaso dute, eta atzera egin dute 2008ko indize fisiko-kimiko eta biologikoetan (urte horretakoak dira azken datuak).
- Azkenik, lurpeko ur-masen % 100 egoera kuantitatibo onean daude eta masen % 7k ez du egoera kimiko ona, industria- edo nekazaritza-jatorriko kutsadura dela eta.



*Hondakin industrialak industriako BPGa baino gutxiago hazi dira (arriskutsuak salbu)*


*Biztanleko hiri-hondakinen ehunekoak ere gora egin du*

*Birziklapena areagotu egin bada ere, hondakinen balorizazio osoa bizkortu behar da*

*Erabateko hobekuntza "ekoberritzaileak" behar dira, ekoizpena eta kontsumoa "desmaterializatzeko"*


## ● Hondakinak sortzea eta tratatzea

### Industria-hondakinak



Azken lau urteotako bilakaerak etendura erakusten du **industria hondakin** ez-arriskutsuen sorreraren eta industriako BPGaren artean. Hondakin arriskutsuekin, ordea, ez da horrelakorik gertatzen. Balorizazio-ehunekoa % 50 inguru da, motaren arabera (2007).


### Residuos urbanos




**Hiri-hondakinen** biztanleko sorkuntzak goranzko joera izaten jarraitzen du, nahiz eta 2008an murriztu egiten zen (544 kg/biztanle), eta Espainiako eta Europako Batasuneko (15) batezbestekoen azpitik dagoen (588 eta 584 kg/biztanle, hurrenez hurren).

Nahiz eta birziklatzen diren hiri-hondakinen ehunekoak gora egin jarraitzen duen, 2008an hiri-hondakinen 261 kg/biztanle eramaten ziren hondakintegira tratatu gabe, Europako Batasuneko (27) batezbestekoaren gainera (214 kg/biztanle, 2007an) eta eredia ezartzen duten herrialdeetatik : (Alemania, Belgika, Suedia eta Danimarka) oso urrun (50 kg/biztanle baino gutxiago). Egungo lege-esparruak agintzen duenez, ez da bidali behar inongo hiri-hondakinik zabortegira aurrez tratatu gabe.


Valorización de residuos peligrosos




Reciclaje de residuos de construcción y demolición



Reciclaje de residuos industriales no peligrosos



Porcentaje de reciclaje de residuos urbanos



Ekoizpen-eraginkortasunaren hobekuntzak ekarri duen kontsumo-murrizketari, birziklatzeari eta berrerabiltzeari esker, kontsumo-ratioak hobetzen ari dira, eta,aldi berean, gaitasun teknologiko berriak garatzen ari dira. Frantzia, Alemania eta Erresuma Batua dira baliabideei produktibitate handiena ateratzen diren herrialdeak; Espainiak, berriz, laugarren postua du, atzetik hasita, Europako Batasunean (15), Greziaren, Portugalen eta Finlandiaren atzetik.

EAEko ekoizpen-sistemaren aztarna ekologikoa 4,66 hektarea global ziren, biztanleko, 2001ean. Horrek erakusten duena da, **planetako biztanle guztiek Euskal Autonomia Erkidegoko biztanleen kontsumo-jarraibide berei jarraituz gero, planetaren azalerak 2,5 aldiz handiagoa izan beharko lukeela**. Arrantza-sektorea dugu baliabideak agortzearen adibide garbia.

Azkenik, material-fluxuak (sarrerak eta irteerak) garraio-mugimendu bizia sortzen du, eta halako fluxuen neurriko azpiegituren beharra agerian uzten du.

## Kontsumitzaile arduratsuaren eginkizuna

EAEko hiru herritarretik batek ingurumenak asko arduratzen duela dio; biztanleriaren % 65etik gora, berriz, kontsumo-ohiturak aldatzeko prest dago.

Ingurumena babestea eta kontserbatzea lehentasunezko helburua da EAEko gero eta jende gehiagorentzat (laugarren postuan dago, aberastasuna sortzearen eta enplegua areagotzearen, pobrezia murriztearen eta gatazka politikoa eta soziala murriztearen atzetik). Lau biztanletik batek lehen postuan jartzen du 10ren urteren buruan lortu beharreko helburuen artean.

Ingurumen-arazoak konpontzeko neurri eraginkorrenak, herritarren ustez, hauek dira: gizartea kontzientziatzea, lege zorrotzagoak egitea eta lege horiek hobeto aplikatzea.

Bestalde, herritarrak prest daude hondakinak eta zaborrak sailkatzen gehiago laguntzeko —gero birzikla daitezen—, garraio publikoa gehiago erabiltzeko eta etxean energia-kontsumoa murrizteko.

*Hazi egin da  
herritarrek  
ingurumenari  
ematen dioten  
lehentasuna*

### 3.3 Klima-aldaketa eta eredu energetikoa.

*Energia-kontsumo intentsiboko sektoreak (adibidez, metalurgia)*

*Erregai astunen erabiltearen ordez gas naturala erabiltzen da*

*Industriaren energia-eraginkortasuna hobetu egin da,*

*Baina garraioak eta etxebizitzaren sektorea ez dira batere eraginkorrak energiari dagokionez*

Nahiz eta energia-kontsumo handiko sektoreak dauden (adibidez, siderurgia), batez besteko energia-intentsitatea (BPG unitateko) EB-27koaren azpitik dago. Industria (% 44) eta garraioa (% 34) dira gehien kontsumitzen duten sektoreak. Etxebizitzaren sektoreak, berriz, % 12 kontsumitzen du; zerbitzuak, % 8. Lehen sektorea ez da % 2ra iristen.


Nabarmenezkoa danabarmen murriztu dela tarte horretan petrolioaren, ikatzaren eta elektrizitate-inportazioaren eragin erlatiboa lehen mailako energia-iturri gisara, eta gas naturalak eta, hein txikiagoan, energia berriztagarriek hartu dutela haien tokia. Petrolioak iturri nagusia izateari utzi dio (% 50 zen 2000n, eta % 40,1, berriz, 2009an), eta gas naturalak protagonismoa hartu du (% 21etik % 47,1era igo da aldi horretan).

Garraio-sektorearen ia hornitzaile bakarra izaten jarraitzen du petrolioak. Industriari eskaeraren % 7a bakarrik dagokio; % 16, berriz, etxebizitzaren sektoreari, gas naturalak hartu baitu petrolioaren tokia.

Aurreko urteetako energia-ordezkapenean eta -eraginkortasunean oinarritutako politikari eta ekoizpen-egitura bera aldatzeari esker, azken urte hauetako kontsumoaren bilakaerak badu nolabaiteko alderik BPGaren bilakaerarekiko: energia-eskaeraren gutzitzea % 0,9 bakarrik hazi da, urteko, nahiz eta BPGa % 3 inguru hazi den —urteko— 2008ra arte. Horrek adierazten du energia-intentsitatea (azken energia-kontsumoa/BPG) % 12 murriztu dela 2000-2009 aldian.

Hobekuntza hori sektore handi guztietan gertatu da (industria, zerbitzuak, garraioa, lehen sektorea), etxebizitzaren sektorean salbu, non handitu egin baita eskaria.



*Energia-sektoreko aurrerapenei esker, industriaren (eta, oro har, jarduera ekonomikoaren) lehiakortasuna hobetu egin da eta, hein berean, berotegi-efektuko gasen aireratzeak murriztu egin dira, datuok adierazten duenez. Nolanahi ere, energia fosilak ordeztearen (edo, bestela esanda, karbono-eduki baxuko ekonomiarantz aurrera egitearen) arazoak hor jarraitzen du.*



**Euskal  
Autonomia  
Erkidegoak ez  
du berezko  
energia-  
baliabide  
aipagarririk**

Nahiz eta Euskal Autonomia Erkidegoak gero eta gehiago hornitzen duen bere burua energia elektrikoari dagokionez, ez du berezko baliabide esanguratsurik: energia berriztagarriek azken kontsumoaren % 5,9 bakarrik asetzen dute, hots, 435 ktep (% 4, 2000n). Biomazaren, energia hidroelektrikoaren eta, berrikiago, haize- eta eguzki-energiaren aprobeixamendutik eskuratzen dira energia-mota horiek.

EAEko energia-sorrera ziklo konbinatuko instalazioetan eta kogenerazioan oinarritzen da, orobat energia berriztagarrietan. Batez ere gas naturala eta, hein txikiagoan, biomasa erabiltzen dute instalazio horiek lehen mailako energia-iturri gisa.



**Arrisku  
bikoitza:  
jatorri fosileko  
erregaien  
horniduraren  
ezegonkortasu  
na**

Gas naturalak hobekuntza nabarmena ekarri du petrolioaren deribatuekiko, energia-eraginkortasunari eta emisioei dagokienez. Baina, jatorriari gagozkiola, energia fosilen artean sailkatzen da; hori dela eta, trantsiziozko energia-iturri bat baino ez da karbono-eduki baxuko ekonomiaranzko bidean, epe luzera begiratuta.


Bi arrisku daude epe luzera: jatorri fosileko erregaien horniduraren ezegonkortasuna (ekonomikoa eta politikoa)

*Petrolio gordinaren prezioa —Brent upeleko— 135 US\$ inguruko maximora iritsi zen 2008an (2001ean, 20 US\$). 2009an bat-batean jaitsi ondoren, 92 US\$-eraino igo zen 2010ean.*

**...eta berotegi-  
efektuko gasen  
emisioak  
klima-aldaketa  
eragitea**

...eta berotegi-efektuko gasen emisioak klima-aldaketa eragitea

**Berotegi-efektuko gasen emisioen bilakaera Euskal  
Autonomia Erkidegoan, Europako Batasunean eta  
Espainian, 1990-2009**



1990az ondorengo emisioen bilakaerak adierazten du BPGaren bilakaerarekin lotura estua izan duela 2002ra arte. Urte hartan maximora iritsi ostean, egonkortu egin ziren, 26 MT inguruko bariazio txikiekin, hurrengo bost urteetan.



**2002az geroztik aldea nabaritzen hasi zen**

**Bi arrisku horien aurka egiteko, energia-kontsumoa murriztu egin behar da eta energia-iturri berriztagarria erabili behar dira**

**Baina, azken helburua karbono-eduki baxuko edo karbonorik gabeko ekonomia da**


**Herritarrek eginkizun berezia dute**

Egungo krisialdiaren hasierarekin batera, nabarmen jaitsi ziren 2008an (25,3ra) eta askoz nabarmenago 2009an (22,6 MT CO<sub>2</sub>e). Ibilbide horri begiratuta, nabarmen bereizi dira 2002az geroztik bi aldagai horien bilakaerak.

Baina oraindik ez gaude kanpaiak jotzeko moduan. Izan ere, joerak norabide egokia duen arren:

- (i) 2008ko eta 2009ko murrizketen ondoren, alderantzizko joera ager daiteke atzeraldi ekonomikoa bukatzen denean;
- (ii) nolana ere, Europako Batasunak 2020rako ezarritako asmo handieneko helburura heltzeko lehen urrats bat da (1990ko mailak % 20 murriztea, hau da, 17,1 MT CO<sub>2</sub>e ez gaitztea edo — nazioarteko giroa egokia bada— 15,0 MT ez gaitztea); eta
- (iii) azkenik, mundu-mailan % 50 inguruko murrizketak lortu nahi dira, beroketa globala 2 gradutik gorakoa izan ez dadin, batez beste, XXI. mendearen bukaerarako.


**Negutegi-efektuko gasen aineratzeak azken sektoreka 1990-2009**



Energia-sektorea da emisio-iturri nagusia (% 40) Baina kuota energia eskatzen duten sektoreetara eramaten badugu, industriak (% 37), garraioak (% 23) eta etxebizitzak eta zerbitzuek (% 22) sortzen dute emisio gehien.

Herritarrek esku-hartze handia dute emisio-sorreran, industriaren atzetik, hondakin-sortzaile baitira etxebizitza-sektorean (% 8), ibilgailu pribatu bidezko garraioan (% 14) eta hondakin-sorreran (% 6).

**Nahiz eta uneren batean klima-aldaketaren efektuak arintzeari buruzko nazioarteko hitzarmenen bat lortuko den, saihestu ezinezko aldatara egokitzea beharrezkoa da.** Kliman jada gertatzen ari diren aldatetak eztabaida ezin dira, eta emisio-hipotesi egokienetan ere areagotu egingo direla aurreikusten da. Aldaketa horiek Euskadin izango duten arriskuen balorazioan zalantza handiak badaude ere, kontuan eduki behar da sektore sozioekonomikoetan eta naturaletan izan dezaketen eragina.



Map 1. Aggregated hazards

*Industriaren eta hirigintzaren garapenak inpaktu handiak eragin ditu natura-ingurunean, paisaian eta bioaniztasunean*

*Etxebizitzak lurzorua okupatzen du, baliabideak kontsumitzen ditu eta hondakinak sortzen ditu*

*Etxebizitzarena gizarte-arazo larria da*

### 3.4 Lurraldearen antolamendua eta erabilera. Biodibertsitatea eta natura-ondarea

Natura-baliabideen artean, leku berezia merezi du lurrraren, ingurunearen, paisaiaren eta biodibertsitatearen trataerak, hiri-okupazioaren garapen desordenatu eta errespetu handirik gabekoaren, industria-lurzoruen kutsaduraren eta azpiegituren eraikuntzaren ondorioak jasan baitituzte aspalditik.

Lurzorua artifizializatzen ari da, lurra baliabide urria eta ezinbestekoa dela ohartzen ez den hiri-plangintza dela medio.


EAEko lurzoru artifizializatua guztizko azaleraren % 8ra iristen ez den arren, okupazio jarraitua nahiko garrantzitsua izan daiteke. 2006-2008 hirurtekoan, 1.060 ha baino gehiago okupatu ziren; aurreko okupazioarekin alderatuta, % 1,9 gehiago.

#### Etxebizitza

Bizitegi-sektoreak arazo ugari sortzen ditu jasangarritasunari dagokionez; izan ere, urriak diren baliabideak (lurzorua eta energia) kontsumitzen ditu, eta hondakinak sortzen ditu etxebizitzaren bizi-ziklo osoan.

Baina, gainera, gizartearen jasangarritasunerako pieza garrantzitsua ere bada, herritarren oinarrizko behar bati baitagokio: etxebizitza duin bat izateko eskubideari, gero eta garestiagoa bihurtzen ari den eskubideari.


Etxebizitzaren eraikuntzaren bilakaera EAEn, 1990-2009



EAEn milioi bat etxebizitza inguru daude; horietatik, heren batek 50 urte baino gehiago ditu.

Etxebizitza-parkeak urteko 20.486 etxeok hazkundea izan zuen 2001-2006 epean; aurreko hamar urteetan, berriz, 10.000 etxebizitza inguru eraiki ziren. Baina biztanleriaren hazkundea moteltzen ari den arren, eraikitako parkea hazten ari da. Hala eta guztiz ere, lehenengo etxebizitza eskuratzea lehen mailako arazo ekonomikoa da gazteak emantzipatzeko eta bizikidetzaren unitate berriak sortzeko.

Etxea erosteko behar diren soldata osoko urteak\*, 1997-2008



Datu horiek adierazten dute ez dagoela orekarik eskaintzaren eta eskariaren artean. Etxebizitza-beharrei eta -eskaerari buruzko inkestaren datuen arabera, 75.000 etxebizitza behar ziren lehen sarrerarako, eta eskaintza 20.000 etxebizitzakoa zen.





*Familia- eta egoera- tipologiek askotariko eskaintza eskatzen dute*

Izan ere, bizikidetzaren unitateek izandako aldaketek (bizitza luzatzea, guraso bakarreko familien edo pertsona bakarren kopuruak gora egin izana, etab.) murrizketa nabarmena eragin dute etxebizitza nagusian bizi den pertsona-kopuruan, eta, horrenbestez, guztizko biztanleria bera izanik ere, etxebizitzaren eskaerak gora egiten du. Arrazoi beragatik, etxebizitza-motaren beharrak askoz ugariagoak dira.

*Lehentasuna eraikitako parkea birgaitzeari eta okupateari*

Etxebizitza eskuratzea errazteko politika tradizionalak **etxebizitzaren eraikuntza sustatzearen** alde egin du, **babes**-motaren baten pean, baina, berriki, jabetzaren ordeko beste modu batzuk sustatzen ari dira (alokairua, zuzkidura-ostatuak).

Azken urteotan, eraikita dagoen parkean jarduerak egiteari ere gero eta garrantzi handiagoa ematen zaio, eta **birgaitzen** laguntzeko politiketan (berriki, birgaitze energetikoari begira) eta hutsik dagoen etxebizitza-parkeetan eragiten da, babes-sistemen bidez **alokairu**-merkatua aterarazteko.

2010-2013 aldirako Etxebizitzaren Gida Planak aurrekoek baino lehentasun handiagoa ematen dio hiriak birgaitzeari, eta ikuspegi indibidualetik ikuspegi kolektibora edo auzo-ikuspegira jotzen du, hau da, **hiri trinkoaren** alde egiten du, azken urteotan izan den hazkunde hedakor hutsaren aldean.

## Natura-ondarea eta bioaniztasuna

Azpiegiturak habitat naturalen azalera murriztu eta zatitu egiten dute, eta espezieak mugitzea eta bizirauteko oztupoak sortzen dituzte.

*Baso-azalera oso handia da EAEn*

- *Ornodunen faunako 400 espezie ingurutik 42 arrisku larrian daude, eta, flora baskularraren kasuan, 3.000 espezieetik 44, bereziki habitat urtarrekin lotutako espezieak.*

*...baina jatorrizko basoak masa zatikatuak eta urrunak dira*

Basoen orbana oso zabala da EAEn, baina jatorrizko basoak masa zatikatu eta urrunek osatzen dituzte.

- *EAEko baso-masak (396.701 ha) EAEko guztizko azaleraren % 55 hartzen du. Ehuneko hori nabarmendu egiten da Europako Batasunean, eta hazten ari da.*
- *Jatorrizko basoaren azalera ere handitzen ari da; hala ere, askotan, jatorrizko baso atlantikoak masa txiki eta elkarrengandik oso urrunek osatzen dituzte.*
- *Baso-azalera ziurtatua baso-masaren guztizkoaren % 14koa da.*



*Gune  
babestuen  
hedadura  
handia*

Babes-mailaren bat duten eremuak ere zabalak dira:

- EAEko Natura Babesteko Legeko Naturgune Babestuak.
- Europako Natura 2000 Sareko gunek: Hegaztien Babes Bereziko Eremuak (HBBE) eta Europako Erkidegoko Leku Garrantzitsuak (EELG).

eta leheneratze-jarduera ugari garatzen ari dira:

- Hezeguneak leheneratzen ari dira (59,6 ha 2007 eta 2009 artean).
- Nekazaritza ekologikoa babesten da, baina nekazaritzarako azalera erabilgarriaren % 0,6ra ere ez da iristen (1.350 ha).
- Nekazaritza-azalera erabilgarriaren % 12 bioaniztasunaren babesarekin lotutako nekazaritza- eta ingurumen-neurrien babespean dago.

*Eta  
leheneratze-  
jarduerak*

*Mugikortasuna giltzarria da jasangarritasunaren estrategia orotan*

*Ekoizpen-sistemak azpiegitura arinak behar ditu*

*Salgaiak errepidez garraiatzen dira; trenak oso salgai gutxi garraiatzen ditu...*

*Lurzoruen okupazio-ereduak (bizitoki-jarduera, lan-jarduera eta zerbitzu-jarduera) lekualdatzeen kopurua areagotu egiten du*

*Autoa gero eta gehiago erabiltzen da hirian mugitzeko*

### 3.5 Mugikortasuna eta azpiegiturak eta garraiobideak

Mugikortasun jasangarria jasangarritasun-estrategia guztien funtsezko osagarria da: ekoizpenaren lehiakortasunean duen eragin ekonomikoagatik (zerbitzuaren kostua); ingurumenean duen eraginagatik —jatorri fosileko erregaien kontsumitzaile handia (kontsumoaren % 34, baina energia-fakturaren % 47), eta, beraz, berotegi-efektuko gasen sortzaile garrantzitsua da (isuriaren % 23)—, eta gizarte-eraginagatik (ezbehartasua, estresa, denbora-kontsumoa).


EAEko ekoizpen-sistemak komunikazio-azpiegitura arinak behar ditu, gure sistema transformatzailea eta bitartekari hutsa baita (produktuak inportatzen ditu, transformatzeko, eta, ondoren, esportatu egiten ditu).

- EAEko ekoizpen-sistemak kanpo-merkatuekiko (Espainia eta atzerria) duen mendekotasuna dela eta, herrialdeetik ateratzen diren eta herrialdera iristen diren salgaien fluxuak etengabea izan behar du (adibidez, 2006an 7.193 milioi tona-kilometro jaso ziren beste autonomia-erkidegoetatik, eta 8.302 bidali. Nazioarteko garraioari dagokionez, 2.022 milioi tona-kilometro jaso ziren, eta 1.751 bidali).
- Gainera, kokapen geografikoa dela eta, penintsularen eta kontinentearen arteko bi zirkulazio-bide nagusietako bat da EAE.
- Eraikitze- eta mantentze-kostua handia da, lurraldearen orografiarengatik eta hiri-dentsitate handiagatik.

**Salgaien mugikortasunari dagokionez, errepidea nagusitzen da; izan ere, salgaien % 78 errepidez mugitzen dira; % 3 eskas, trenez (itsasoa garraiobide garrantzitsua da kanpo-mugimenduetan, % 19).**

#### *Pertsonen mugikortasuna EAEn*

Pertsonen mugikortasuna ibilgailu pribatuari esker hazi da:



- Eguneroko joan-etorri gehienak oinez egiten dira; ondoren, autoz eta garraio publikoz. Autoa gero eta gehiago erabiltzen da.
- Jardueren eta azpiegituren zabaltze metropolitarrak eta bizitoki sakabanatzeak herritik kanpoko mugikortasuna bultzatzen du. EAEko hiriburuetarako sarreraren eguneroko batezbestekoa % 3 igo da 2003 eta 2007 artean.
- Eskualdeko mugetatik kanpo, autoz mugitzen dira bidaiarien % 74-88.
- Distantzia luzeko mugikortasunari dagokionez, autoa eta hegazkina nagusitzen dira.

*Ibilgailu-  
zirkulazioaren  
pilaketa...*

*ezbehar-  
kopurua*


*giro-kutsadura  
eta kutsadura  
akustikoa*

*Energia-  
mendekotasun  
a*

*CO<sub>2</sub>-emisioak*

*Habitat  
naturalen  
zatiketa*

Garraioaren energia-  
kontsumoa, 2009



Garraioaren kanpo-eraginak (ingurumen-, gizarte- eta ekonomia-inpaktuak) handiak dira.

Energia-mendekotasunaz eta CO<sub>2</sub> emisioei egiten dien ekarpenaz gainera, garraioak **osasunean** dituen ondorioak ere kontuan izan behar dira, arlo hauei dagokienez:

- Bideko segurtasuna: 2008an, 12.654 istripu izan ziren; 84 hildako, larriki zauritutako 642 lagun eta arin zauritutako 6.449.
- Airearen kalitatea
- Biztanleriari eragiten dioten zarata-mailak
- Herritarren sedentarizazioa

Lurra artifizializatu eta habitat naturalak zatitu ere egiten ditu. Horrek ondorio kaltegarriak ditu bioaniztasunean.

### 3.6 Ongizate-estatua

*Bizi-mailaren eta osasunaren oso balorazio ona*

*Biztanleriaren zahartzeak eragina du osasun-sisteman eta gizarte-zerbitzuetan.*

*Besteen laguntza behar duen jende gehiago*

*Gaixotasun kroniko gehiago*

*Prebentzioaren garrantzi handiagoa*

*Zerbitzuen finantzaketan eta kontu publikoen bideragarritasunean eragiten du.*

EAEko biztanleriaren ehuneko handi batek dio bere bizi-maila eta osasun-baldintzak oso onak direla: puntuazioaren batezbestekoa 6,19 eta 7,65 artekoa da kontuan hartutako demografia-taldean eta talde sozioprofesionalean artean. Alde handienak lagineko biztanleriaren gizarte-maila kontuan hartzean ikusten dira.


Biztanleriaren zahartzeak eragin handia izango du eskatuko diren zerbitzuetan, baita kontu publikoen jasangarritasunean ere. Pentsio-sistema publikoan dituen ondorioak bistakoak dira, bai kotizatuko dutenen kopuruan murrizketa erlatiboa izango delako, bai kotizatutako urteen eta eskubide pasiboak jasoko diren urteen arteko ratioa txikiagoa izango delako.

#### **Gastu publikoaren igoera Osasunean eta Gizarte Zerbitzuetan. Horizonte 2030**




*Sozioekonomia gaietarako Lehendakariaren Aholkularitza Batzordea, Demografia, enplegua eta prestakuntza etorkizunean EAE 2030.*

#### **Gaixotasun kronikoak dituzten gaixoen bilakaera, adinaren arabera, 1997-2007**



#### **Besteen laguntza behar duten 6 urteko edo gehiagoko herritarrak dituzten EAEko etxeak. 2011-2014**



Baina gizarte-zerbitzuetan ere eragin handia du; izan ere, besteen laguntza behar duten biztanleen kopuruak gora egiten du, eta zerbitzu horiek familian bertan emateko gaitasuna murriztu egiten da (familiako kideen mugikortasun eta sakabanatze geografiko handiagoa, lan-merkatuan erabat barneratzea eta, beraz, emakumeari eman zaion rola amaiera).

Bizi-itxaropena luzatzeak ere eragiten dio osasun-sistemari; izan ere, gaixoen profila aldatu egin da, gaixotasun kronikoen kopurua hazi, eta prebentzio-sistemak eta etxeko segimenduak nagusitzen dira, ospitaleko tratamenduaren gainetik.

Kontuan hartzen bada, bestalde, arreta- eta estaldura-mailak handitu egin direla, EAEko osasuneko eta gizarte-zerbitzuetako kostua BPGaren % 3 igo beharko litzateke 2020rako —2010eko % 8,4tik 2020ko % 11,2+/% 12,1era—, eta, oraingoz, beste % 3, gutxienez, hurrengo hamarkadan. Zenbateko horretatik, herena baino zerbait gehiago (% 38) gizarte-zerbitzuen kostua izango litzateke; gainerakoa, osasunarena.

*Errenten eta aukera sozioprofesionalen alde gero eta handiagoak arriskuan jar dezake sistemaren jasangarritasuna.*

*Aurrerapauso handia egin da ongizate-gizarte kohesionaturantz EAEn*


*Ez da lortzen pobrezia EAetik erabat erauztea.*

*Lan-merkatua, gure sistemaren ahultasun nabarmen bat*


### 3.7. Gizarte-kohesioa eta -elkartasuna

Merkatu-sistema ekonomikoak metaketa-prozesuak eragiten ditu (errentak, baliabideak); horiek, berriz, hasierako banaketaren eta zurruntasunen arabera, errenta-banaketa desorekatuak eragiten dituzte. Mendebaldeko herrialde garatuek —Euskadi tartean dela— babes-sistemak dituzte, hain zuzen egiturazko eta koiunturazko desoreka- eta desberdintasun-egoera horiek zuzentzeko. Bestalde, merkatuko indarrekiko mendekotasuna dela eta, honengatik edo hargatik enplegarritasun-baldintzak betetzen ez dituzten pertsonak edo taldeak merkatutik kanporatzeko arriskua dago. Pobreziaren eta bazterketaren gurgil zoroa abian jartzen du horrek.

#### **Pobrezia erreala adierazlearen bilakaera, 1986-2008**



#### **Pobreziaren, ongizaterik ezaren eta ongizate erreala adierazleak**



EAEn nabarmen egin da aurrera ongizate-gizarterantz azken hamarkadetan. Pobrezia erreala behera egin du 1980ko hamarkadaren erdialdetik.

Bizi-mailaren hazkunde-prozesu orokorrak ez ditu gero eta desberdintasun-egoera gehiago sortu; aitzitik, sistemaren gizarte-jasangarritasuna areagotzen lagundu du.

Emaitzak aztertuz gero, EAEko politikak egokiak izan dira gizarte-desberdintasunari eta -bereizketari aurre egiteko.

Baina prozesu horrek mugak ere baditu. Ez da lortzen pobrezia EAetik erabat erauztea.

Egungo krisi ekonomikoak zalantzan jartzen ditu ongizate-estatuaren ereduaren etorkizuna eta datozen urteotan programa batzuk aplikatu ahal izatea (esaterako, diru-sarrerak bermatzekoa).

Egungo gazte-belaunaldiek emantzipazioa atzeratu egiten dute, besteak beste enpleguaren behin-behinekotasunagatik.

Lan-merkatua gure sistemaren ahultasun nabarmena da Ongizate-maila finkatu eta aurrera egiten jarraitzeko, lanaren kalitatea eta soldata-maila hobetu egin behar dira. Baina hori ez da lortuko lanpostuak balio erantsi handiko sektoreetan sortzen ez diren artean.


Krisiak, berriz, ondorio bereziki larriak izan ditu atzerriko etorkinengan, eta pobreziaren eta behin-behinekotasunaren modu berriak agerrarazi ditu.



## Garapena eta nazioarteko lankidetzaz

Hamarkada bat geroago, munduko krisi ekonomikoaren, goseteen, kezka-eraren igoeraren aurrean, ur-ekasiaz eta klima-aldaketaren bizkortzea erronka berriak dira giza garapen jasangarrikoak.

*Nazioartean,  
Milurtekoko  
Helburuak  
urrun geratu  
dira*



Eusko Jaurlaritzaren garapenerako egungo nazioarteko agendaren oinarria da 2000. urtean proposatutako milurtekoko helburuak betetzea, haiekin bat egiten baitu erabat, eta giza garapen jasangarria hartzen du lankidetzaz-jardueren ardatza nagusitzat. Zortzigarren helburuak dio garabidean dauden herrialdeek eta herrialde garatuek baterako erantzukizuna dutela, munduko itun bat oinarri harturik.

EAEko gobernuak aurrekontuaren (2010) % 0,49 bideratu du nazioarteko garapenerako lankidetzaz-proiektuetara, FOCADen, Ekintza Humanitarioko Esku Hartzeen eta beka eta hitzarmenen bidez.

Finantzaketa hori osatzen dute udal ugari eta foru-aldundiek garapenerako proiektu horiei edo beste batzuei egiten dieten ekarpenek. Ez da gehiegi esatea, ordea, laguntza horien guztizkoa garabidean dauden herrialdeei laguntzeko proposatutako BPGaren % 0,7tik urrun dagoela.



### 3.8 Kultura eta gizartea

*Euskal nortasuna eta euskara aktibo baliotsuak dira gure mundu globalizatu honetan.*

*Oraindik ez da nortasunari buruzko adostasunik lortu*

*Euskararen erabileraren normalizazioa*

*Atzerriko immigrazioa, fenomeno berria*


*Proposamena: Euskadi «2030ean berrikuntzaren erreferentzia» bihurtzea*

*Gutxienekoen etika*

*Garapen jasangarria lehentasuntzat hartzeko gero eta sentsibiltate handiagoa*

Euskal nortasuna eta euskara aktibo baliotsuak dira kulturak berdintzeko joera duen gure mundu globalizatu honetan. Euskal nortasuna —irekia, berritua eta partekatua— herritar guztiak batzen dituenarekin osatu behar den eraikuntza-prozesu etengabe baten emaitza da, betiere desberdintasunak eta taldearen ondarea eta memoria errespetatuz, gizarte-kohesioaren eta garapen demokratikoaren eragile izan dadin.

Bestalde, euskararen gizarte-ekarpenaren defizitak (erabileraren normalizazioa) bere horretan dirau



Alde berrietakoetako bat atzerriko immigrazioaren zenbatekoa da, 1986ko % 0,2tik 2010eko % 6,4ra igo baita.

Erronka berrietara egokitzeko, euskal gizarteak munduko erreferentzia izan behar du berrikuntzan.

Gizarte berritzaile bat ikaskuntzara irekitako gizarte bat da, ziurtasunak, nabaritasunak eta errutinak zalantzan jartzeko eta horrek eragiten duen desorekari aurre egiteko gai dena.

Horretarako, balio instrumental batzuk garatu behar dira:

- *Ezagutza —baliabide giltzarri—, lehengai nagusi.*
- *Lankidetzeta, lanaren eta gizarte-eragileen arteko harremanen oinarritzko filosofia.*
- *Aldaketa onartzeko prest egotea, eskuratutako ezagutza aplikatzeko eta beste ezagutza batzuk garatzeko beharrezko jarrera.*
- *Globalizazioa, hau da, ingurune global batean jarduteko pentsaera eta ikuspegia.*

Horrek guztiak bizikidetzarako, elkarrekiko tolerantziarako eta giza eraikuntzarako oinarri eta etika bat behar ditu, «**Gutxienekoen etika**». Izan ere, gaur egungo giza aniztasunak munduaren eta bizitzaren interpretazio desberdinetara garamatza.

Badirudi, inkestek adierazten dutenez, garapen jasangarria lehentasun bihurtzeko joera gero eta handiagoa dagoela.



### 3.9. Gobernantza

*Gure gizartearen arazoak gero eta konplexuagoak dira, gero eta gehiago erlkarri uztartuak. Egungo gobernantza-moduak berrikustea eskatzen du horrek.*

*gobernatzeko  
beste era bat  
arazo  
konplexuagoet  
arako*

- Gizarte modernoan jasangarritasun-erronka gehienak nazioz haraindikoak direlako.
- Administrazioak (tokikoak, Europakoak, eta, batzuetan, mundukoak) elkarri gainjartzen zaizkiolako.
- Irtenbideak konplexuak direlako (alderdi ekonomikoak, teknologikoak edo instituzionalak dituzte), eragile ugariaren askotariko interesak bateratzea eskatzen baitute.
- Herritarrei gero eta protagonismo handiagoa dagokielako arazoak konpontzeko, eta hala eskatzen dutelako.

*Herritarren eta  
interes-taldeen  
parte-hartze  
handiagoa*

Horrek guztiak administrazioak eraginkorragoak izatea eskatzen du, kalitatezko administrazioak izatea, informazio- eta komunikazio-teknologiaren sinplifikazioan eta erabileran aurrera egingo duena, eta herritarrei eta interes-taldeei parte-hartze handiagoa emango diena programak prestatzeko eta ebaluatzeko prozesuetan.

Horrekin batera, maila ugari gure administrazio publikoaren kostuak sinplifikatu egin behar dira, eta eskumenen banaketari eta gizarte-behar guztiak kudeatzeko lankidetzara publiko-pribatuari buruz hausnartu.

*Administrazioa  
rekin gustura  
daude  
herritarrek,*

Hala ere, herritarrek balorazio positiboa ematen diote administrazioari, bereziki gertukoenerari (% 69 nahiko gustura edo oso gustura dago udalarekin, % 57 Foru Aldundiarekin eta %52 Eusko Jaurlaritzarekin). Informazio- eta komunikazio-teknologiak ere gero eta gehiago erabiltzen ditu, bai eguneroko bizitzan bai administrazioarekiko harremanetan.

Erabilitako zerbitzu publikoei buruzko iritziak ere positiboak dira, bereziki gehien erabiltzen dituztenei buruzkoak (osasu-zerbitzuak eta hezkuntza).

*Baina  
hobekuntzak  
eskatzen  
dituzte*

Hala ere, herritar gehienek iritzi hobea dute sektore pribatuari buruz publikoari buruz baino, zerbitzuaren kalitateari, burokraziari, profesionaltasunari, berrikuntzari, lanerako motibazioari, antolaketa onari, eraginkortasunari eta herritarrek pozik izateko kezkarik dagokienez. Administrazio publikoa berdintasunagatik eta parte hartzeko ematen duen aukeragatik soilik nabarmentzen da pribatuaren gainetik.

Herritar gehienek uste dute eskumenak bikoiztu egiten direla erakundearen artean, eta administrazioaren arteko koordinazioa ez dela ona.

*Hala ere, zerga-sistemarekiko mesfidati dira, ematen dutena baino gutxiago jasotzen dutela uste baitute...*

Erdi-mailako zergadun gehienek (% 51) uste dute ordaintzen dutena baino gutxiago jasotzen dutela, edo ordaintzen dutena jasotzen dutela (% 33). Horrenbestez, % 17 soilik dago zerga gehiago ordaintzearen alde gizarte-zerbitzuen prestazioak hobetzeko.

Gehiengoak (% 50) uste du zerga asko ordaintzen direla dagoeneko EAEn, eta ez dagoela zerga-justiziarik (ez dutelako gehiago ordaintzen gehien dutenek eta administrazioak ez diolako egokiro aurre egiten zerga-iruzurrari).

Aurrekontu-murrizketa (hipotetikoa) aipatuta, osasuna eta hezkuntza dira herritarrek murrizketetatik gehien babestu nahi dituztenak.

Herritarrek administrazio publikoarekin duten asebetetze-mailaren balantzea



Iturria: Eusko Jaurlaritza, Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, *Euskal Soziometroa 43: Politika publikoak*, 2010eko urria. Balantzeak pozik dauden (nahikoa edo asko) eta pozik ez dauden (nahikoa edo asko) ehunekoen arteko aldea neurtzen du.



## 4 Ondorioak: Euskadiko ekoizpen-, ingurumen- eta gizarte-ereduaren jasangarritasuna: gure erronkak

**Laburpen** honen hasieran aipatu dugunez, gure sistemak **hiru mehatxu handiri** egin behar die aurre, eta, erantzun egokirik eman ezean, orain arte nahiko arrakastatsua izaten ari den ongizate-sistema agortu egingo dute, *pixkanaka, baina itzulerarik gabe*:

*Munduko herrialde guztiek dituzten*

*baina erantzun espezifikoak behar dituzten hiru mehatxu handi*

*Euskal gizarteari dagokionez, berariazko bederatzi desafio dakarzukiote*

*Energia-ereduaren aldaketa*

*Erabateko ekoberrikuntza*

- Lehenengo mehatxua **urriak diren baliabideak** agortzearekin lotuta dago (energia, beste lehengai batzuk, elikagaiak, ura). Munduko merkatuetan gero eta herrialde gehiagok nahi dituzte baliabide **gero eta preziatuago** horiek, eta horrek gure ekoizpen-sarearen **lehiakortasunaren** oinarriak berriro definitzea eskatzen du, mundu ireki eta **globalizatu** bati begira egon daitezen.
- Bigarren mehatxua, egungo energia-ereduari hertsiki lotua, **klima-aldaketa** da. Klima-aldaketa arintzeko, energia fosiletan oinarritutako energia-eredua erabat aldatu behar da, baina aldaketa horrek ere ondorioak izango ditu, eta ondorio horietara ere egokitu beharko da arlo jakin batzuetan (nekazaritza, kostako azpiegiturak...), 2020tik aurrera eta oro har, muturreko fenomeno atmosferikoak maizago izango direlako (uholde-arrisku handiagoak...).
- Hirugarren mehatxua **gure bilakaera demografikoarekin** lotuta dago; izan ere, biztanle-kopuruaren egonkortzera garamatza, eta 2020tik aurrera, biztanle-kopurua jaistera, beharbada.

Gainerako herrialdeak ere mehatxu horien pean daude, baina bakoitzak irtenbide espezifikoak behar ditu.

Hiru mehatxu horiek gure errealitate sozioekonomikoan duten eraginean oinarrituz, EAEko **sistema sozioekonomikoaren bederatzi jasangarritasun-erronken** formulazioa aurkeztzen dugu proposamen moduan. "Erronka" deritzegu gure ekoizpen- eta bizitza-sistema (orokorra, ez tokikoa) hautsi dezaketen joerei edo bilakaera-arauei, bere horretan jarraituz gero, gure ikuspegia edo lortu nahi dugun helburua edozein izanik ere. Hauek dira:

1. Hasteko, bistakoa da egungo **energia-eredua** agortzear dagoela, energia fosilean oinarritutako sistema amaitzen ari dela. Agortze hori *zorionekoa* da, munduko beste arazo bati behin betiko erantzuna ematea eskatzen baitu, konponduko bada. Arazo hori **klima-aldaketa** da, berotegi-efektuko gas-emisioek eragina. Emisio horiek, hein handi batean, energia fosilen errekuntzarekin lotuta daude.
2. **Bigarrenik, munduan lehengai asko agortzear egoteak materialen erabilera-eraginkortasunaren garrantzia areagotu egiten du.**



*Negozio-eredu  
berriak,  
lehiakorrak eta  
orokorrak*

Bi desafio horiek berrikuntza ekologikoaren edo **ekoberrikuntzaren** aro berri bat behar dute; aro horrek, berriz, (I) karbono gutxi erabiltzen duen ekoizpen-sistema eraiki beharko du; (II) energia berriztagarrien erabilera gogor sustatu beharko du; (III) eta ekoizpen-jardueran ahalik eta gehiena desmaterializatu beharko du. Bide horretan, industria-jarduera ugari amaituko dira, ondasunak eta zerbitzuak ekoizteko katea nazioartean eta modu globalizatuan kudeatzeko.

3. Desafio horiek bi arrazoi hauengatik indartzen ditu lehiakortasunaren **globalizazioak**: (I) mundu-merkatuan gero eta herrialde gehiago lehiatzen direlako, tamaina eta potentzia handiko herrialde berriak sartzean; (II) herrialde horiek gehitzeak energia- eta lehengai-eskaera ikaragarri areagotzen duelako, eta, beraz, agortze-prozesua azkartzen duelako.

Ekonomiaren globalizazioa, ordea, **aukera**-iturri ikaragarria ere bada (eskaeraren handitzea, ez eskaintzarena bakarrik), baina gure lehiakortasun-terminoak berriro zehaztea eskatzen du. Gure produktuak lehiakorrak ziren munduan, hainbat segmentutan, baina orain berriro definitu behar dira, hala izaten jarraitu dezaten. Produktu berriak garatu, teknologia berriak txertatu eta **negozio-eredu berriak** diseinatu beharko dira, jasangarritasuna irizpide nagusitzat hartuta: *ezin dugu orain arte bezala jarraitu*.

*Bizitza  
luzatzea*

4. EAEren eginkizunetako bat ( herrialde garatu guztiena bezala), **desafio demografiko** hauei erantzutea da: bizi-itxaropena luzatzea, hau da, *“zahartze demografikoa”* deritzon hori, eta jaiotza-tasaren jaitsiera. Bi fenomeno horiek elkarri lotuta daude, baina konponbide desberdinak dituzte. Zahartzea, berez, bizi-kalitatearen hobekuntzaren emaitza positibo bat da, baina oso kontuan izan beharreko eragozpen bat sortzen du: besteekiko mendekotasun ekonomikoko urte-kopuruak gora egiten du, eta, kasurik txarretan, baita mendekotasun pertsonalekoek ere. Osasunarekin lotutako gizarte-zerbitzuen kostu-igoera eragiten du horrek (gaixo kroniko gehiago), baita besteen laguntza behar duten herritarren gastuen igoera ere. Gizarte-zerbitzuen kostu-hazkundera ez ezik, ordea, bizitza luzatzeak negozio-aukerak ere sortzen ditu (produktu berriak, zerbitzu berriak), zahartze aktiboari buruzko hausnarketak eragiten ditu, baliabideak eta gaitasunak baliatzeko eta gizarte-erantzukizunei erantzun berriak emateko lagungarriak.

*Besteen  
laguntza behar  
duten  
herritarren  
kopurua  
handitzea*

Bigarren aipatu duguna jaiotza-kontrolaren fruitu ere bada, eta emakumeen eta haien bikotekideen aukera pertsonal bihurtzen da. Positiboa da ikuspegi horretatik, baina negatiboa aukera pertsonal hori lanak edo beste betebeharren batek *eraginda* amatasun/aitatasunaren zama gainean hartzeko ezgaitasunak ezarri badu. Negatiboa da, halaber, EAEko ugalkortasun-tasa berritze-tasa demografikoaren azpitik ibiltzea azken urteotan. Baina ekonomikoki aurreratuak diren herrialdeen tasatik behar izateak pentsarazten du familia eta lana uztartzeko politika batzuek eroriko hori zuzendu dezaketela.

*Ugalkortasun-  
tasaren  
jaitsiera*

*Familiako eta  
laneko -bizitza  
uztartzea*

*Gazteria  
gogotsu  
gizarteratzea  
eta lan-  
merkaturatzea*

Jaiotza-tasaren beherakadak biztanleria aktiboa ordezkatzeko arazoa sortzen du, eta gizarte-zamen eta pasiboen finantzaketarekin lotutako gizarte-arazo bat. Hori dela eta, immigrazioari eta zama horien finantzaketari buruzko planteamendu berriak egin beharko dira.

5. Aldaketa demografikoekin lotuta dago **gazteak lan-merkatuan txertatzeko** erronka eta haien gizarte-autonomia. Kontraesankorra da biztanleriaren piramidea estutzen ari den arren, lan-merkatua ez egotea belaunaldi berriei garapen profesionalerako aukerak emateko moduan. Kontuan izan behar da, bestalde, gazteen maila profesionala inoiz izan dugun hoberena dela. Berehalako arrisku bat talentuak ihes egitea litzateke (lana beste herrialde batzuetan bilatzen duten gazteak) edo, are larriagoa, beste herrialde batzuetan prestatu eta esperientzia jaso duten gazteak berreskuratu ezina.

Behin-behinekotasuna eta azpiokupazioa lan-merkatuaren bi gabezia nabarmen dira, eta frustrazioa eragiten dute. Lehenengoa arauekin lotuta dago; bigarrena, berriz, irakaskuntza-sistema lan-merkatuaren eskaeretara egokitzearekin. Behin-behinekotasun horrek eta norberaren etxea izateko zailtasunak (edozein jabetza-erregimenetan) gazteek bizimodu autonomoa izateko aukerak mugatu egiten dituzte, eta "gizarte aurreratua" deritzenetan baino luzaroago egoten dira gurasoen etxean. Hori guztia dela eta, sormena, berrikuntza, ekintzailetza eta mugikortasuna murriztu edo mugatu egin daitezke.

*Gizarte  
berritzaile bat  
sortzeko behar  
diren balio  
instrumentalen  
gainbehera*

6. Aurreko hamarkadetan lortutako arrakasta materialak gure gizartea eratzeke **balioen** bizitasun-galera eta **antzutasuna** ere eragin dezakete: joera ekintzailearen galera, elkartasunarena eta berdintasunezko justiziarena, laneko zintzotasunarena, adostasun etiko partekatu batean oinarritua. Desafio berriek balio osagarri batzuk eskatzen dituzte: ezagutza-nahia ardatz bihurtzea; lankidetzaren lanaren eta gizarte-eragileen arteko harremanen oinarri izatea; aldaketarako prest egotea, eskuratutako ezagutza aplikatzeko eta ezagutza berria garatzeko, eta globalizazioa onartzea, hau da, tokiko egoeratik abiatu ingurune global batean jarduteko pentsaera eta ikuspegia izatea.

Balio horiek beharrezkoak dira gizarte-kohesioari eusteko ere, kulturari eta jarrerei dagokienez gizarte aniztunagoa onartzeko ikuskera irekiago eta toleranteagoarekin, baita gizartearen erdibiketa saihesteko ere, baztertzeko arriskuan dauden kolektiboek laguntza emanez, bistakoa baita gizarte-aldaketak azkartzean eta aukerak ugaritzean arrisku horrek ere gora egingo duela.

*Klima-  
aldaketara  
egokitzea*

*Desafioei  
egokitutako  
gobernatzeko  
era asmatzea*

*Garapenaren  
aldeko  
nazioarteko  
ituna*

7. **Klima-aldaketara egokitzeko** beharra ere desafio dugu, ez txikia, gainera. Euskadi klima-aldaketa saihestezinak gehien eragindako herrialdeen artean ez badago ere, 2100erako aurreikuspenek diote bai tenperaturetan, bai prezipitazio-erregimenetan aldaketak izango direla, eta itsas-maila eta muturreko fenomenoak ugaritu egingo direla. Horrek guztiak eragina izan dezake osasunean, airearen kalitatean, baliabide hidrikoetan, nekazaritza-eta natura-inguruneetan, ibai-arroetan eta kostaldeetan uholdeak izateko arriskuan eta, beraz, sistema sozioekonomiko eta naturaletan, oro har. Horregatik, lurraldearen ordenamenduan eta planeamenduan eta natura-ingurunearen kudeaketan jardun beharko da, eta kostako azpiegiturak indartu.

8. Arazoen zeharkakotasunaren eta globalizazioaren adibide ona dugu klima-aldaketa. Merkatuen integrazio gero eta handiagoa eta nazioartera gero eta gehiago hedatu beharra ere horren adibide dira, munduko finantza-krisiak agerian jarri duen moduan. Halako arazoen aurrean, gobernu tradizionalak oso ahulak dira; ez dira eraginkorrak. Desafio horiek eskatzen duten **gobernantzarako** erronka bat da hori, bai administrazio publikoei dagokienez, bai gizarte-enpresa eta -erakundeei dagokienez.

Gobernantza sendotu beharra dago, lehentasuna duten arazoen kudeaketa globalizatuari ekiteko. Bestalde, gobernantza berri batek planak egiteko eta proiektuak kudeatzeko prozesuetan parte-hartzeko aukera handiagoa eman behar die herritarrei eta interes-taldee.

9. Azkenik, hor jarraitzen du nazioarteko garapena eta kohesioa sustatzeko premiak ere, bai **desberdintasunei eta pobrezari** aurre egiteko, bai horiek eragin ditzaketen nazioarteko arazoak eta gatazkak indargabetzeko. Elkartasunagatik, baita *geure interesagatik* ere, egin behar dugu hori; izan ere, bizimoduen arteko aldeak plangintzarik gabeko mugimendu demografikoak sustatzen jarraituko dute.

Garapenaren aldeko nazioarteko itunak (nazioarteko topaketa askotan formulatutako konpromisoa) garbi adierazten du Lurreko herrialde pobreenen garapena herrialde garatuen erantzukizuna ere badela.